

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

6399

IRAGARKIA, 2021eko abenduaren 13koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Arabako Laudio udal-mugartean eta Bizkaiko Orozko udal-mugartean, Larragorri parke eolikorako alde z aurreko administrazio-baimenaren eskaera.

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), Larragorriko parke eolikorako aurkeztutako alde z aurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Kokalekua: Larragorri.
- Eskatzailea: Green Capital Development 147, SL.
- Tartean dauden udal-mugarteak: Laudio (Araba) eta Orozko (Bizkaia).
- Haize-sorgailuen kopurua: 5.
- Instalatu den potentzia gordina: 22,5 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonala	UTM x	UTM y
1	502470	4773501
2	503395	4773340
3	503777	4772829
4	504198	4772318
5	504961	4771818
6	503968	4771412
7	503774	4771880
8	503930	4772027
9	503365	4772379
10	503057	4772790
11	502367	4772910

Hori guztia argitara ematen da, eta hogeit eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita,

2021eko abenduaren 24a, ostirala

parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Bizkaiko Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu/>

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 13a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.